

2- Balioa:

SmartBin-ak dituen onurak gure hiriarentzat eta batez ere hiritarrentzat izango dira. Alde batetik, gaur egun dauden paperontziek, gehiegizko espazioa erabiltzen dute. Zenbait kasutan, gure hirietako espaloia erdia baino gehiago okupatzen dute. Horrek, arazo larriak ekartzen ditu, espazio murriztua, pertsonak ezin dute behar bezala ibili...etab. SmartBin-arekin, arazo guzti hauek konponduta daude, zakarrontzi bakar batean, nahi duzun zakar guztia bota ahal dezakezu. Beste alde batetik, hiritar gehienek, nola birziklatzeko arazoak izaten dituzte, batez ere zakarra ea ze koloretako paperontzian bota behar den eta honelako arazoak izaten dituzte, gure produktuarekin, aldiz, arazo hau baita ere konponduta izango dute. Zuk, zure zakarra paperontzira botatzen duzunean, bertan dauden sentsoreek etab. bertako zakarra barruan, lur azpian dauden kolore ezberdinetako paperontzietan banatzen dute zakarra automatikoki. Gainera, ez du kutsatzen, ez duelako inolako konbustiozko makinarik erabiltzen, zakarraren banaketa egiteko. Guztiz “ecofriendly” da SmartBin paperontzia.

Honetaz gain, lasaitasuna transmititzen duen produktu bat da. Normalean, paperontzia botatzera joaten diren %80-a gutxienez zalantzan jartzen du bere burua ea nola banatu

behar duten beraien zaborra, kolorearen arabera. Pertsona bakar batek horrelako arazoa izango balu, ez zen izango munduarentzat arazo bat. Baina, egunero milaka eta milaka pertsonak arazo berdina badute eta egunero horrelako akatsak izaten badituzte, gure munduarekin amaituko dugu. Aldiz, SmartBin-arekin arazo guzti hauek amaitu egingo dira eta gure munduaren eta guztion biziraupena bermatzen lagundu egingo du.